

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 21/2022 Foru Dekretua, maiatzaren 17koa. Onestea alda daitezela mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahatsaren sitsari (*Lobesia botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntza arautzen duten oinarriak, eta onestea 2022rako deialdia

Aspaldi erakutsi zen sexu nahasketako tekniken bidez mahats mordoaren sitsari aurka egiteko metodoa eraginkorra dela, bai eta kausa-ondorio harremana dagoela ere mahastietan mahats mordoaren sitsa garatzearen eta mahatsaren heltze aldian botrytisa agertzearen artean. Horrek eragin negatibo zuzena dauka fruituaren kalitatean eta, beraz, ardoen kalitatean.

Sitsa kontrolatzeko sistema hori aspaldi ezarri zen mahastizaintza eta ardogintzako beste zona batzuetan, bai eta Errioxa jatorri-deituraren barruko zona jakin batzuetan ere, eta emaitza bikainak eman ditu. Hala ere, gure eremuan oraindik ez dago behar bezainbeste ezarrita eta, horregatik, Arabako Foru Aldundiak interes handia dauka Arabako ardogintza eskualdeetan teknika horren erabilera sustatzeko. Horregatik, otsailaren 1eko 24/2021 Foru Aginduaren bidez, onetsi ziren foru agindu honen eranskinean jasotako sexu nahasketako teknikak erabiliz Arabako Errioxan mahats mordoaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurka egiteko estrategia garatzeko partaide talde bat sortzeko interesa agertzeko deialdi publikoaren oinarriak. Horren ondorioz, beren ustiatzearen teknika horretaz baliatzeaz interesa duten pertsona eta erakundeek zerrenda egin zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Dekretuaren bidez, onespina eman zitzaion mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahatsaren sitsari (*Lobesia botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntzaren oinarri arautzaileei eta 2021erako deialdiari.

Teknika horren baldintza teknikoak eta ekonomikoak direla-eta, teknika hori garatzeko enpresa eta erakundeek parte hartze aktiboa behar da, sustatzaile eta aholkulari jardun dezaten, bai eta osagai kimikoen eta haiek aplikatzeko behar diren ekipoen hornitzaileena, eta teknikaren azken erabiltzaile izan nahi duten upeltegiena eta ustiatzearen ere.

Emaitza gisa, agerian geratu da mahastizainek teknika hori ezartzeko interesa dutela, eta ekimen hori babesten jarraitzearen egokitasuna indartzen du.

Kudeaketako urte batean lortutako esperientziaren ostean, pentsatuta dagoen foru dekretuaren xedea eta helburua da laguntzaren oinarri arautzaileak aldatzea, laguntzaren garapena bultzatzeko eta eragile desberdinen artean sinergiak sortzeko, lurraldean zehar heda dadin haren berezitasun espezifikoak kontuan hartuta. Bezitasun horiek hauexek dira, funtsean: mahastizaintzako lursailen partzelazio handia eta tamaina txikia, eta ustiatzearen atomizazio handia, egungo erabileraren hedapen mugatuarekin konbinatuta. Beraz, beharrezkoa da laguntza hori erakargarriagoa egitea eta Arabako ardogintza eskualdeetan teknika ezartzeko hasierako fase horietan duen eginkizun bultzatzailea hobetzea.

Era berean, funts publikoak behar bezala aplikatzen direla bermatzeko, beharrezkoa da zehapen araubide bat ezartzea, teknikaren aplikazioa hedatzearen arloan hartutako konpromisoak betetzen ez diren kasuetarako.

Kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiaren 2022ko gastuen aurrekontuan laguntza horietarako kreditua dagoela, egokia da onespina ematea mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahatsaren sitsari (*Lobesia botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko 2022rako laguntzarako deialdiari.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahatsaren sitsaren (*Lobesia botrana*) aurkako estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntzaren oinarri arautzaileak aldatzea. Oinarri horiek Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren. Hona hemen oinarrien aldaketak:

1. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 1. apartatua, onuradunei eta pertsona fisikoari buruzkoa, eta honela uztea:

2.1. Pertsona fisikoak:

a) Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan inskribatutako nekazaritza ustiategi baten titularra izatea.

b) Araban dauden mahasti guztiak Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroan inskribatuta edukitzea.

c) Ez edukitzea mahasti ez-emankorrik edo arauz kanpokoak.

d) Bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen egunean egotea.

e) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.

f) Administrazio zehapenik edo zehapen penalik jaso ez izana sexua dela-eta diskriminazioa egin izanagatik, eta debeku horrekin zigortuta ez egotea otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarrez (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea).

g) Eskaera egitea dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

h) Nolanahi ere, hirugarren batzuei tratamendua aplikatzen dien nekazaritza ustiatagia izan daiteke onuraduna, baldin eta produktu fitosanitarioekin egindako transakzioen eta eragiketen erregistro elektronikoan (RETO) inskribatuta badago, eta teknika aplikatzearen kostua bere gain hartu behar du, proiektuaren xede diren mahastiak ustiatagian ez badaude ere.

2. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluko 1. eta 2. apartatuak, laguntzaren berariazko baldintzei eta konpromiso buruzkoak, eta honela uztea:

3.1. Aurreko artikuluan ezarritakoaz gainera, onuradunak ondoko baldintza eta konpromiso hauek ere bete behar ditu:

- Eskaeran jarritako lurzati mahastidunak laborantza egoera onetan izatea.

- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari erabili den produktua (bufferrak edo barreia gailuak) sorotik kentzeko asmoaren berri ematea, laguntzaren ebazpenaren jakinarazpena jaso aurretik. Bestela, ulertuko da produktuak irauten duela eskaeran adierazitako lurzatiengan. Produktua sorotik egote hori, laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak betetzearen frogan fidagarritzat jotzen da. Produktua ez egotea, berriz, baldintza ez betetzea dela ulertuko da eta laguntza ukatzea ekar dezake ondorioz.

- Ihintzatze bidezko teknika aplikatzea aukeratuz gero, tratamendu hori non eta noiz egin den erregistratuta duen landa koadernoan aurkeztea.

3.2. Banakako eskaerak taldean aurkeztu beharko dira, eta proiektuaren kudeatzaileak aurkeztutako proiektu baten barruan egon. Proiektuak baldintza hauek bete beharko ditu:

- Pertsona fisiko edo juridiko batek aurkeztea, zeina proiektuaren kudeatzaile egiten baita. Aurkezleak ez dauka zertan izan nahitaez parte hartzen duten nekazaritza ustiatagietako bat, eta Nekazaritza Sailarekiko solaskide kolektiboaren eginkizunak bete beharko ditu.

- Kudeatzaileak aurkeztutako memorian, banakako eskaerez gainera, emandako datuen arabera haiek ebaluatzeko behar den informazioa ere jasoko da. Informazio hori eranskin moduan aurkeztu beharko da. Horren edukia 5.3. artikuluan azaltzen da zehatz mehatz.

- Bai kudeatzaileak, bai parte hartzen duten nekazaritza ustiatzekiek, aurretiaz interesa agertu beharko dute otsailaren 1eko 24/2021 Foru Aginduan ezarritakoaren zentzuan –agindu horren bidez, onetsi ziren Arabako Errioxan mahats mordoaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurka egiteko strategiaren garapeneko parte-hartzaile talde bat sortzeko interesa agertzeko deialdi publikoaren oinarriak–, edo, bestela, eskaeran bertan baimena eman beharko dute zerrenda horretan sartzeko.

- Proiektuaren barnean sar daitezke Arabako Lurralde Historikotik kanpo dauden lurzatiak, baina diruz lagundu ahal iznago dira, soilik, Araban dauden finketan egindako ekintzak eta ustiatzeki eskatzailean jada inskribaturik daudenak.

- Elkarren ondoan jarritako proiektuak sartu eta finantzatu ahal izango dira, 4.5 artikuluan ezarritako baldintzetan, betiere aurreko 1. artikuluan jasotako laguntzaren helburuak bermatzen badira.

3. Aldatzea 45/2021 Foru Dekretuaren 4. artikuluko 1., 2., 3. eta 4. apartatuak, eta 5. apartatua eratzea, Laguntzen kalkuluari eta zenbatekoari buruzkoak, eta honela uztea:

4.1 Eskatzaileen, mahastigintza azalera onargarrien eta sartuta dauden proiektuak lortutako puntuen zerrenda egingo da, ondoko puntuan zehaztutakoaren arabera.

4.2. Kalkulua: Laguntzen zenbatekoa klakulatzeko, elkarlaneko proiektua balioetsiko da ondoko parametro tekniko hauen arabera, eta kontuan edukiz mahatsaren sitsaren aurkako sexu nahasketako teknikaren ezaugarriak eta eraginkortasun handiagoa edo txikiagoa:

- Proiektuan parte hartzen dutenen kopurua:

2 – 4	5 puntu
5 – 10	10 puntu
11 – 20	20 puntu
20 baino gehiago	30 puntu

- Proiektuaren barruan dagoen azalera, hektareatan:

1 – 4	5 puntu
4 baino gehiagotik 10era arte	10 puntu
10 baino gehiagotik 50era arte	20 puntu
50 baino gehiago	30 puntu

Proiektuan jasotako aldearen trinkotasuna:

Trinkotasuna koefiziente bat da, teknika honen erabilera eraginkorra izateko faktore garrantzitsuenetako bat neurtzen duena: alegia, lurzatiak elkarren mugakide izatea, bere artean ahalik eta hutsarte txikienak utzita, eta teknika hau erabiltzen ez duten lurzatiekiko mugak ahalik eta luzera txikiena izatea. Honela definitzen da: eragindako eta benetan tratamendua emandako lurzatiaren azaleraren eta lurzati horiek barnean hartzen dituen gutxieneko kanpo azaleraren arteko koefizientea.

0,2ra arte	10 puntu
0,2 baino gehiagotik 0,6ra arte	20 puntu
0,6 baino gehiagotik 1era arte	30 puntu

4.3. Zenbatekoa: Proiektuan diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa ondoko taulan adierazitako ehuneko izango da, tratamendua emateko erabilitako produktuen kostuarena, aurretik azaldutako irizpideekin lortutako puntuen arabera.

20 puntura arte	ehuneko 0
40 puntura arte	ehuneko 40
60 puntura arte	ehuneko 50
90 puntura arte	ehuneko 60

4.4. Eskaera guztiak barematuko dira, eta lortutako puntuen taularen arabera dagokien ehunekoa emango zaie.

Onuradun bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 2.000,00 eurokoa da.

Proposamen positiboa duten eskaeren guztizko zenbatekoa batuta, aurreko paragrafoan adierazitako muga aplikatu ondoren, laguntza lerro honen deialdia ebazteko erreserbatutako zenbatekoa gainditzen bada, guztizkoaren gaineko defizit ehunekoaren arabera hainbanatuko da.

Proiektu bakoitzak gutxienez bi parte hartzaile eta tratatutako hektarea bateko azalera izan beharko ditu, elkarren ondoan jarritako proiektuetan izan ezik.

4.5. Proiektu bat, 4.2 artikuluan ezarritako gutxieneko baldintzak banaka betetzen dituen ala ez alde batera utzita, beste proiektu baten ondoan jarritako proiektutzat jo ahal izango da 3.2. artikuluan ezarritakoaren ildotik, baldin eta, kalkulaturako baremazio osoa unitate bat balitz bezala hartuta, jatorrizko proiektuarenaren berdina edo handiagoa bada, eta beste proiektu baten ondoan jartze horrek ez badu bere trinkotasun koefizientearen balioa murrizten.

Kasu horretan, batera hartzearen ondoriozko baremoa elkarren ondoan jarritako proiektuen eskaera guztiei aplikatuko zaie, eta eragina izango du baterako proiektuaren baremazioan ere.

4. Aldatu egiten da 5. artikulua, Eskabidea aurkezteko epea, modua eta lekua izenekoa, 3. zenbakian, eta puntu bat gehitzen zaio 5.3.3. artikuluari, laguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuei buruz. Honela geratzen dira idatzita:

5.3. Banakako eskabidearen edukia eta aurkeztu beharreko agiriak:

5.3.1. Eskaera orria (erantsitako ereduaren arabera), behar bezala beteta eta izenpetuta.

5.3.2. Eskaeraren I. eranskina (proiektuko bat izango da, proiektuaren kudeatzaileak aurkeztua). Hau izango da haren edukia:

a) Proiektuaren barruan sartu diren eskatzaileen datuak: izena/sozietatearen izena, NAN/IFZ eta ustiategi zenbakia.

b) Eskatzaile bakoitzak proiektuaren barruan sartutako lurzatiak, haien SIGPAC erreferentziaz identifikatuta. Eragindako azalera, guztira.

c) Aukeratutako metodoa (bufferra, barreiagailuak, ihinzatzea), lurzatien espazio banaketaz eta haren eragin eremuaz justifikatuta.

d) Produktu fitosanitarioaren ezaugarriak: Erregistro orria: osaera, prestakin mota, funtzio mota, erabilera eremua, feromona dosia (difusore/formulatu bakoitzeko), iraunkortasuna. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren Produktu eta Material Fitosanitarioen Erregistro Ofizialean horretarako baimenduta eta inskribatuta egon beharko duen produktua.

e) Ha bakoitzeko erabilitako dosiak eta zenbat aldiz aplikatu diren (hala badagokio).

5.3.3. Eskaerarekin batera frogagiriak aurkeztuko da:

– Gastuen fakturak eta frogagiriak, 10.2 puntuan zehaztutakoaren arabera.

– Ihinzatze tratamenduen kasuan, aplikazioen oharrak jasotzen dituen landa koaderno (data, tratatutako azalera eta dosia).

– Onuradunak hirugarren batzuei tratamendua aplikatzen badie, hirugarrenei aplikatzeko koaderno.

5. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Dekretuaren 8. artikuluko 3. apartatua, lursailetan teknika aplikatu dela egiaztatzeko egin beharreko kontrolei buruz, eta honela uztea:

8.3. Baldintza horiek ez betetzeak eta, eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, lursailetan teknika aplikatu dela egiaztatu ezin izateak laguntza baliatzeko eskubidea galtzea ekarriko du, baita dagoeneko jasotako zenbatekoak eta legezko interesak itzultzea ere, indarrean dagoen araudiaren arabera bidezkoak diren gainerako ekintzei kalterik egin gabe.

6. Aldatu egiten da 45/2021 Foru Dekretuaren 9. artikuluko 3. zenbakia, eta ebazpeneko zenbatekoa gutxitzearen kontzeptua sartzen da. Horrez gain, bereizketa bat ezartzen da ebatzitako zenbatekoak gutxitzearen eta ebazpen negatiboan kasuetarako, eta honela geratzen dira idatzita:

9.3. Laguntzak emateko eta ordaintzeko ebazpenak emango dira, eta haietan laguntzaren zenbatekoa ezarriko da eskaera bakoitzerako. Ebazpenean murrizketaren bat egonez gero (azkenean baliozkotutako azalera hitzartutakoa baino txikiagoa da), laguntza kalkulatzeko, azalaren murrizketa 11. artikuluan azaldutakoaren arabera kalkulatu da. Ebazpena ezezkoa izanez gero, haren arrazoia zehaztuko da. Bi kasuetan, 2. artikuluan jasotako baldintza orokorrak ez betetzeagatik bada, eta teknika benetan aplikatu dela frogatzen bada, ebazpen horrek ez du eraginik izango proiektuaren baremazio osoaren emaitzan. Aitzitik, arrazoa 3., 8. edo 11. artikuluetan jasotako konpromiso eta alderdi teknikoak ez betetzea bada, edo ezin bada gastua edo teknikaren aplikazioa egiaztatu, proiektu horren onuradunei egiten zaizkien gainerako ordainketak baremazio berriaren eraginpean geratuko dira (baremazio hori azalera baldintzak eta, hala badagokio, parte hartzaileen kopurua aldatu ondoren lortzen da), eta bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatu ahal izango da.

9.4 Laguntzaren ebazpena banan-banan jakinaraziko da eta aurreko atalean adierazitako informazioa emango da jakinarazpenean.

7. Aldatzea 45/2021 Foru Dekretuaren 10. artikuluen 2. apartatua, gastuak justifikatzeko faktura onargarrien data tartea zehazten duena. Honela geratuko da idatzita:

10.2. Laguntza ordaintzeko, ezinbestekoa da honako hauek aurkeztea:

– Eskaera, behar bezala beteta.

– Eranskin osoa, kudeatzaileak aurkeztu beharrekoa, 5.3 artikuluan azaldutakoaren arabera.

– 5.4 artikuluan eskatutako dokumentazioa. Egindako gastuak justifikatzeko, jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztuko dira, onuradunak ordaindu dituela egiaztatuta. Fakturak eskaeraren urtean sortutako gastuenak izango dira, gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu artekoak. Ordainketa egiaztatzeko, dagokion banku transferentziaren agiria aurkeztuko da, edo merkataritza zirkulazioan froga balio bera duen beste agiri baten bidez. Nolanahi ere, 1.000,00 euroko gastuak edo hortik gorakoak banku transferentziaren edo beste titulu baliokideren baten bidez frogatu behar dira, iruzurraren kontrako prebentzio ekintzen eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzen uztailaren 9ko 11/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Banku elektronikoen baten agiriak izatekotan, agiri horiek banku entitateak zigilatuta etorri beharko dira.

8. Aldatzea 45/2021 Foru Dekretuaren 11. artikulua. Artikulu horretan, hartutako konpromisoak bete diren egiaztatzeko egindako administrazio kontrolen edo tokian bertan egindako kontrolen ondorioz aplikatu beharreko zehapenak eta zenbateko gutxitzeak jasotzen dira. Honela geratuko da idatzita:

11. artikulua. Zehapenak eta zenbateko gutxitzeak

Administrazioko edo tokian tokiko kontrolen ondorioz erabakitzen bada benetan tratatutako azalera hitzartutakoa baino txikiagoa dela, alde hori kontuan hartuko da eta bien arteko aldearen ehunekoaren arabera murrizketak aplikatuko dira:

– Ehuneko 20ko edo hortik beherako aldea: benetan tratatutako azaleraren arabera ordainketa.

– Ehuneko 20tik gorako aldea, baina ehuneko 50ekoa edo txikiagoa, laguntza kalkulatzeko oinarri gisa erabiliko den azalera tratamendua jaso duen azalera izango da, egiaztatutako aldearen bikoitza kenduta.

– Ehuneko 50etik gorako aldea: laguntza ukatuko da.

Bigarrena. Onestea dirulaguntza horien 2022ko deialdia, honako ezaugarri hauekin:

– Eskerak aurkezteko epea eta lekua: 2022ko uztailaren 26tik abuztuaren 15era, biak barne.

Eskerak hemen aurkeztu behar dira:

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.

– Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroetan.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak bere 14.2 artikuluan ezarritakoa betez, betiere telematikoki aurkeztu behar dute, egoitza elektronikoen bidez (<https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun;>) edo beste administrazio publiko batzuetako erregistro elektronikoen, pertsona juridikoen, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaz elkargoko kide izatera behartzen duen jarduera profesional batean ari direnek (jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako), eta administrazioarekiko harremanak nahitaz bide elektronikoz izan behar dituen interesdun bat ordezkatzeko dutenek.

– Kreditu erreserba: 17.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldirako gastu aurrekontuko 40104. G/419401/77000418 "Sitsaren Kontrol Biologikorako Laguntza Plana" partidaren kontura. (Zorpekin erreferentzia: 22.1.22.105.1769/000).

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da, hasieran erreserbatutakoaren gehieneko zenbateko berean, baita aurrekontu partidaren edozein zirengatik gerta daitekeen kredituaren zenbatekoan, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea laguntza lerro honetarako deialdi hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapen bakarra.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 17a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE